



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO MARTXOAREN 3AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- JESUS M. AGIRRESAROB E ARZALLUS JAUNARI AGINAGAKO FERMIÑENE
BASERRIKO LURRETAN ARRAULTZA EKOLOGIKOAK ERALDATZEKO LANTEGIA
EZARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

JESUS M. AGIRRESAROB E ARZALLUS jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dut (Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0001). Bertan, Aginagako Fermiñene baserriko lurretan (1. poligonoko 42. partzela) arraultza ekologikoak eraldatzeko lantegia ezartzeko udal baimena eskatzen du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 36.589,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	-----
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 352,53 €
	Fidantza (%120): 423,034 €

Eskaera aztertu ostean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2017ko otsailaren 17an dagokion txostena eman du.

Idazkariak ohartarazten du Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariaren adierazitakoa.

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JESUS M. AGIRRESAROB E ARZALLUS jaunari, Aginagako Fermiñene baserriko lurretan (1. poligonoko 42. partzela) arraultza ekologikoak



Usurbilgo Udala

eraldatzeko lantegia ezartzeko udal baimena ematea ondorengo baldintza bereziak betetzekotan:

- AASStan Lur Ez Urbanizagarriako ezarritako xedapenak beteko dira.
- 2016ko abenduan Asier Arregi Hernández Ingeniari Agronomoak egindako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, baimen honetan aipatutako baldintzekin eta udal arkitekto taldeak bere txostenean jasotakoekin kontraesan batean sartu gabe.
- NBE-CA-88 eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa beteko dira.
- Eraikuntza, behin behineko izaerarekin baimentzen da, eta beti ere ustiapenarekin loturiko lehengaien produkziara zuzenduta egongo da soilik.
- Baimendutako eraikuntzak lantegi erabilera izango du soilik, ez da onartuko etxebizitza erabilerarik ezta bestelako erabilerarik ere.
- Bertan garatu nahi den jarduerari dagokionez, lehendik baimendutako jardueraren osagarritzat ulertzen da eta osasun sailak ezarritako baldintzak, hala nola bere egunean udalak ezarritakoak, bete beharko dira.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.